ORDIZIAKO UDALA

Gizarte-ongizatearen arloko eskumenen eta jardueren eremuan beren programak eta jarduerak garatzen dituzten erakundeei diru-laguntzak emateko oinarrien aldaketa.

Udalbatzak, 2021eko otsailaren 25ean egindako ohiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen gizarte-ongizatearen arloko eskumenen eta jardueren eremuan beren programak eta jarduerak garatzen dituzten erakundeei diru-laguntzak emateko oinarrien aldaketa.

Erabakia eta aipatutako oinarri horiek Idazkaritza honetan daude ikusgai, 30 eguneko epean, ediktu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izango dituzte.

Legeak iragarkia jendaurrera aterata edukitzeko jartzen duen epea inork ezeren erreklamazio edo oharrik egin gabe pasatzen bada, behin-betiko onartutzat joko da erabakia, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Aldaketa hori behin betiko onartuz gero, ondoriorik gabe geratuko dira Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 16an egindako bilkuran onartutako Gizarte Ongizatearen arloko eskumen-eremuan programak eta ekintzak garatzen dituzten erakundeei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

Toki-jaurbidearen oinarriak arautzen dituen 7/85 legearen 49. atalean adierazitakoari jarraiki ematen da horren guztiaren berri.

Ordizia, 2021eko martxoaren 5a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (1692)

Gizarte-ongizatearen alorreko eskumenetan eta jardueretan beren programak eta ekintzak garatzen dituzten entitateei zuzendutako diru-laguntzak emateko oinarriak.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da garapenerako entitateei eta taldeei zuzendutako laguntza ekonomikoak ematea arautzea, eta Gizarte Zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasun Sailaren jardueren edo programa nahiz proiektu berrien urteko programak egitea arautzea, besteak beste honako sektore hauetan:

— Minusbaliotasuna/mendekotasuna.

— Familia eta haurrak.

— Kolektibo desfaboratuen gizarte-bazterketa eta gizarteratzea/pobrezia.

— Koordinazio sozio-sanitarioa.

— Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

— Immigrazioa.

— Droga-mendekotasunak.

— Gizartearen intereseko beste batzuk.

AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

Modificación de las bases para la concesión de subvenciones a entidades que desarrollan sus programas y actividades en el ámbito de competencias y actuaciones del área de bienestar social.

El Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 25 de febrero de 2021, aprobó inicialmente la modificación de las bases para la concesión de subvenciones a entidades que desarrollan sus programas y actividades en el ámbito de competencias y actuaciones del área de bienestar social.

Tanto el acuerdo como las referidas bases se hallan de manifiesto en esta Secretaría durante el plazo de 30 días a contar del siguiente a la inserción de este edicto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, durante este plazo podrán ser examinadas y formularse por los interesados las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrá por definitivo el acuerdo adoptado, sin necesidad de nuevo acuerdo.

Con la aprobación definitiva de dicha modificación se dejaran sin efecto las bases reguladoras de la concesión de subvenciones a entidades que desarrollen programas y acciones en el ámbito competencial del área de Bienestar Social, aprobadas por el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el día 16 de octubre de 2008.

Lo que se hace público en cumplimiento de lo preceptuado en los artículos 49 de la Ley 7/85 de Bases de Régimen Local.

Ordizia, a 5 de marzo de 2021.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (1692)

Bases para la concesión de subvenciones a entidades que desarollen sus programas y acciones en el ámbito de las competencias y actividades en materia de bienestar social.

1. Objeto.

El objeto de las presentes bases es regular la concesión de ayudas económicas a entidades y colectivos de desarrollo, así como la realización de programas anuales de actividades del Departamento de Servicios Sociales, Diversidad, Cooperación y Nuevos Programas y Proyectos del Departamento de Salud, entre otros, en los siguientes sectores:

— Minusvalía/dependencia.

— Familia e infancia.

— Exclusión e inclusión social de colectivos desfavorecidos/pobreza.

— Coordinación socio-sanitaria.

— Igualdad de mujeres y hombres.

— Inmigración.

— Drogodependencias.

— Otros de interés social.

EK\CV GAO-I-2021-01692

2. Onuradunak.

Diru-laguntzaren helburu diren proposamenek Euskararen Udal Ordenantza bete beharko du, baita gainerako udal ordenantzak ere.

Diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte elkartearen helbidea Ordizian duten, eta beren gizarte-programak udalerrian garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate juridiko pribatuek.

Halaber, laguntzak jaso ditzakete udalerriarentzat interesekoak izan daitezkeen jarduerak sustatzen dituzten gizarte-entitateek ere, horien sustatzaileek beren elkartearen helbidea Ordizian ez badute ere.

Entitateek indarrean dagoen legeriaren arabera eratuak egon beharko dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean erregistratuak egon behar dute eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik (7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko elkarteei buruzkoa eta 145/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duena). Halaber, udal-intereseko irabazi asmorik gabeko elkarteen Erregistroan erregistratuak egon beharko dute, eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik.

3. Kanpo gelditzea.

Dei honetatik kanpo geldituko dira honako jarduera hauek:

a) Subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batekin bat datozenak.

b) Jardueraren izaera edo xedea kontuan hartuta, Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumo alorrari dagozkion jardute-eremuekiko ezeinekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

d) Ez dira aintzat hartuko Konstituzio Zuzenbideak jasotzen dituen eskubideak urratuko dituzten elkarteetatik nahiz entitateetatik datozen proposamenak (14. art.: jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritziagatiko bereizkeria).

4. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskabideak aurkeztea.

Oinarriak kontsultatzeko, dokumentazioa eskuratzeko nahiz argibideak eskatzeko, Ordiziako Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasun sailera joan, edo Udalaren web orria kontsulta daiteke: www.ordizia.eus.

Entitate interesdunek baliabide elektronikoak erabiliz eskatu eta egin behar dituzte izapide guztiak. Diru-laguntza eskatzeko, web formularioa bete behar da. Helbide honetan dago eskuragarri: www.ordizia.eus.

Diru-laguntzak jasotzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Elkartearen estatutuen arabera, elkartea ordezkatzeko eskumena duen pertsonaren NA.

2. Subentzio-eskaera normalizatua, behar bezala beteta, eta Elkartearen estatutuen arabera, elkartea ordezkatzeko eskumena duen pertsonak sinatua.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

4. Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren dokumentuaren fotokopia.

5. Banku- nahiz aurrezki-entitate batek luzatutako agiria, entitate eskatzaileak horretan irekita duen kontu korronte baten titularra dela ziurtatuko duena.

6. Entitate eskatzailearen estatutuak eta curriculuma: partaideak, helburuak, burututako jarduerak, eta abar.

7. Instituzioei, Erakundeei eta bestelakoei luzatutako subentzio-eskaerei buruzko aitorpena, edo, hala balitz, emanda dauden dirulaguntzei buruzkoa.

2. Beneficiarios.

Las propuestas objeto de subvención deberán cumplir la Ordenanza Municipal del Euskera y el resto de Ordenanzas Municipales.

Podrán acceder a las subvenciones las entidades jurídicas privadas sin ánimo de lucro que tengan su domicilio social en Ordizia y desarrollen sus programas sociales en el municipio.

Asimismo, podrán ser beneficiarias de estas ayudas las entidades sociales que promuevan actividades que puedan ser de interés para el municipio, aunque sus promotores no tengan el domicilio de su asociación en Ordizia.

Las entidades deberán estar constituidas conforme a la legislación vigente y estar inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes (Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones del País Vasco y Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco). Asimismo, deberán estar inscritas en el Registro de Asociaciones sin ánimo de lucro de interés municipal antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

3. Exclusión.

Quedan excluidas de esta convocatoria las siguientes actuaciones:

a) Las que se correspondan con alguna de las situaciones previstas en los artículos 13.2 y 3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Suvenciones.

b) Las que, atendiendo a la naturaleza o finalidad de la actividad, no guarden relación directa con ámbitos de actuación propios del área de Bienestar Social, Sanidad y Consumo.

d) No se tendrán en cuenta las propuestas que procedan de asociaciones o entidades que vulneren los derechos recogidos en el Derecho Constitucional (art. 14: discriminación por nacimiento, raza, sexo, religión, opinión).

4. Presentación de la documentación y solicitudes a presentar.

Para consultar las bases, obtener documentación y solicitar aclaraciones, puede dirigirse al Departamento de Servicios Sociales, Diversidad, Cooperación y Salud del Ayuntamiento de Ordizia o consultar la página web municipal www.ordizia.eus.

Las entidades interesadas deberán solicitar y realizar todos los trámites utilizando medios electrónicos. Para solicitar la subvención es necesario cumplimentar el formulario web. Disponible en www.ordizia.eus.

Para la concesión de las subvenciones se deberá presentar la siguiente documentación:

1. El DNI de la persona que, conforme a los estatutos de la asociación, sea competente para representarla.

2. Solicitud normalizada, debidamente cumplimentada y firmada por la persona que, de acuerdo con los estatutos de la Asociación, sea competente para representar a la asociación.

3. Certificado de inscripción en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.

4. Fotocopia del documento de Número de Identificación Fiscal.

5. Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que acredite ser titular de una cuenta corriente abierta al efecto por la entidad solicitante.

6. Estatutos y currículo de la entidad solicitante: participantes, objetivos, actividades realizadas, etc.

7. Declaración relativa a las solicitudes de subvención a Instituciones, Entidades y otros organismos, o, en su caso, a las subvenciones existentes.

EK\CV GAO-I-2021-01692

8. Urteko ekintzen programaren deskribapen zehatza, edo diru-laguntzak xede izango duen proiektuaren definizioa.

9. Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua.

10. Eskatzailea 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan onuradun ez izateko xedatutako baldintzetatik ezein ez dela betetzen adierazten duen erantzukizunpeko aitorpena. Horretan, espresuki adieraziko da zerga-betebeharrak eta/edo prezio publikoengatikoak egunean dituela, eta indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela.

11. Aurreko urteko deian diru-laguntza jaso bada, horren justifikazioa aurkeztu beharko da, oinarri hauetako 10. eta 11. puntuetan jasotakoaren arabera.

Udalak entitatea edo elkartea udal-intereseko Elkarteen Udal Erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatuko du bere kabuz.

Nolanahi ere, eskaeran jasotakoaren arabera, jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak, aurkeztu zaion jarduera baloratze aldera, behar beste informazio osagarri eska diezaioke entitate eskatzaileari.

Interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako agiriak ez aurkezteko. Administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten duenean izan ezik.

Eskaera eta dagokion eranskin eredua urteroko deialdiarekin batera argitaratuko dira.

5. Aurkezteko epea eta modua.

Aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.2.a) artikuluan arautzen betetzeko, erakunde interesdunek telematikoki egin behar dituzte laguntza programa honetarako izapide guztiak.

Eskabide eredua eta eskabidearekin aurkeztu beharreko eranskinak eskuragarri daude Udaleko egoitza elektronikoan.

Entitate eskatzaileak aurkeztutako agiriak osatu gabe daudela, edo Oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen egiaztatuta, hamar egun balioduneko epean akats formalak konpontzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio. Hala egingo ez balu, eskatzaileak bere eskabidea alde batera utzi duela ulertuko da, eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, artxibatu egingo da besterik gabe.

6. Eskabideak baloratzeko eta ebaluatzeko irizpideak.

Diru-laguntza norgehiagokako araubidean emango da.

Eskabideak Gizarte Zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasun Saileko zerbitzu teknikoek aztertu eta baloratuko dituzte; aipatu Alorreko Ordezkaritzak egingo du diru-laguntzak emateko proposamena, eta organo eskudunari aurkeztuko dio, horrek erabaki dezan.

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, entitate eskatzaileek lor daitezkeen puntu guztietatik erdia gutxienez lortu beharko ditu. Zenbatekoa eta baremoak honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak, 40 puntu bitartean, honako alderdi hauei erreparatuta:

* Proiektuaren kalitatea:

— Aurkezpena, egitura, helburuak, metodologia, koherentzia.

8. Descripción detallada del programa anual de acciones o definición del proyecto objeto de subvención.

9. Presupuesto de ingresos y gastos.

10. Declaración responsable de no cumplir ninguno de los requisitos establecidos en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 para no ser beneficiario. En el mismo se indicará expresamente que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y/o de precios públicos, así como de las obligaciones con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

11. En el caso de haber recibido subvención en la convocatoria del año anterior, se deberá presentar justificación de la misma, de acuerdo con lo recogido en los puntos 10 y 11 de estas bases.

El Ayuntamiento verificará de oficio la inscripción de la entidad o asociación en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal.

No obstante, según se recoge en la solicitud, además de la documentación relativa a la actividad, el Ayuntamiento podrá requerir a la entidad solicitante cuanta información complementaria considere necesaria para la valoración de la actividad presentada.

Los interesados tienen derecho a no presentar documentos que obren en poder de la Administración actuante o que hayan sido expedidos por cualquier otra Administración. Estos documentos podrán ser consultados o solicitados por la Administración actuante, salvo oposición del interesado.

La solicitud y el modelo de anexo correspondiente se publicarán junto con la convocatoria anual.

5. Plazo y forma de presentación.

El plazo de presentación será de 20 días naturales desde la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 14.2.a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las entidades interesadas deberán realizar todos los trámites para este programa de ayudas de forma telemática.

El modelo de solicitud y los anexos a presentar con la solicitud están disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento.

Se requerirá a la entidad solicitante para que, en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, acreditando que la documentación presentada no está completa o no reúne los requisitos exigidos en estas Bases. En caso contrario, se entenderá que el solicitante ha desistido de su solicitud, archivándose automáticamente de acuerdo con la normativa vigente.

6. Criterios de valoración y evaluación de las solicitudes.

La subvención se concederá en régimen de concurrencia competitiva.

Las solicitudes serán analizadas y valoradas por los Servicios Sociales, Diversidad, Cooperación y Servicios Técnicos del Departamento de Salud, la cual realizará la propuesta de concesión de las subvenciones y la elevará al órgano competente para su decisión.

Para ser subvencionadas las entidades solicitantes deberán obtener al menos la mitad de la puntuación total alcanzable. La cuantía y baremos se determinarán en función de los siguientes criterios:

a) Características del programa propuesto, hasta 40 puntos, atendiendo a los siguientes aspectos:

* Calidad del proyecto:

— Presentación, estructura, objetivos, metodología, coherencia.

EK\CV GAO-I-2021-01692

— Gizarte zerbitzuekin koordinazio eta komunikazio sistema.

— Ebaluazio-sistema eta adierazleak.

* Programak gizartean izango duen oihartzuna: Hartzaileak eta xede taldeak identifikatzea.

* Ekintzaren eragina (Inpaktua).

— Jardueraren onuradunak.

— Ordiziako gizarte zerbitzuetako jarduarekin izandako osagarritasun-maila.

— Pertsonen eta/edo elkarte inplikatuen gaitasuna areagotzea.

* Programaren ibilbidea eta errotzea.

* Berrikuntza: Hobekuntza-proposamenak eta elementu berritzaileak sartzea eta/edo proposatutako halako beste jarduerarik ez egotea.

* Zeharkotasuna:

— Kultura artekotasuna: Proiektuak kultur aniztasunaren onarpena, berdintasuna, diskriminazio eza eta interakzio positiboa sustatzeko neurriak ezartzen ditu.

— Genero-ikuspegia: Proiektuak emakumeen jabekuntza sustatzea eta gizonen eta emakumeen beharrak jasota uztea, eta erakundeko erabaki-postuetan parte hartzen duten emakumeen portzentajea.

— Hizkuntza-normalizazioa: Euskararen tratamendua ekintzen gauzatzean eta hedapenean eta euskararen erabilera elkartearen ohiko funtzionamenduan.

b) Entitate eskatzailearen ezaugarriak, 40 puntu bitartean, honako alderdi hauei erreparatuta:

* Taldearen ibilbidea: Elkarteak zenbat denbora daraman esparruan lantzen eta Ordizian lanean jarraian daramatzan urte kopurua.

* Erabiltzaile eta/edo bazkide kopurua.

* Elkartearen eginkizunak: Udaleko Gizarte Zerbitzuen esku-hartze arloaren funtzioekiko osagarritasuna.

* Partaidetza eta kolaborazioa: sare-lana beste elkarteekin batera jardutea, udalarekiko lankidetza, boluntariotza sustatzea.

c) Entitatearen finantza-baliabideak, 20 puntu bitartean, honako alderdi hauei erreparatuta:

* Proiektuaren kostua:

— Aurrekontu-kontzeptuen arteko egokitzapena, zehaztapena eta doikuntza hartuko dira kontuan.

— Aurkeztutako programa aurrekontuaren eta elkartearen urteko aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna.

* Bideragarritasun ekonomikoa:

— Beste erakunde batzuen bidezko autofinantzaketa- edo finantzaketa-maila.

— Proiektuaren egingarritasun- eta jasangarritasun-maila.

Azpiatalen puntuaketak urteroko deialdietan zehaztuko dira.

7. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Entitate edo elkarte bakoitzari eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: aurrekontuaren bideragarritasuna, jarduerari aurreikusi zaion defizita, eta, hala badagokio, aurreko urteetan jarduera horretarako bideratu diren diru-laguntzak.

Dagokion deialdian finkatuko da proiektu erakunde eskatzaile bakoitzari gehienezko zenbateko diru-laguntza emango zaion.

— Sistema de coordinación y comunicación con los servicios sociales.

— Sistema de evaluación e indicadores.

* Repercusión social del programa: identificación de personas destinatarias y grupos objeto de subvención.

* Alcance de la acción (Impacto).

— Personas beneficiarias de la actividad.

— Nivel de complementariedad con la actividad de los servicios sociales de Ordizia.

— Incremento de la capacidad de las personas y/o asociaciones implicadas.

* Trayectoria y arraigo del programa.

* Innovación: incorporación de propuestas de mejora y elementos innovadores y/o ausencia de otras actividades de este tipo propuestas.

* Transversalidad:

— Interculturalidad: el proyecto establece medidas para promover el reconocimiento de la diversidad cultural, la igualdad, la no discriminación y la interacción positiva.

— Perspectiva de género: promover el empoderamiento de las mujeres y recoger las necesidades de hombres y mujeres y el porcentaje de mujeres que participan en los puestos de decisión de la organización.

— Normalización lingüística: tratamiento del euskera en la ejecución y difusión de las acciones y en el funcionamiento habitual de la asociación.

b) Características de la entidad solicitante hasta 40 puntos, atendiendo a los siguientes aspectos:

* Trayectoria del grupo: el tiempo que lleva trabajando la asociación en el ámbito y el número de años que lleva trabajando en Ordizia.

* Número de personas usuarias y/o socias.

* Funciones de la asociación: complementariedad con las funciones del área de intervención de los Servicios Sociales Municipales.

* Participación y colaboración: trabajo en red con otras asociaciones, colaboración con el ayuntamiento, fomento del voluntariado.

c) Recursos financieros de la entidad, hasta 20 puntos, atendiendo a los siguientes aspectos:

* Coste del proyecto:

— Se tendrá en cuenta la adecuación, determinación y ajuste entre conceptos presupuestarios.

— Proporcionalidad entre el presupuesto del programa presentado y el presupuesto anual de la asociación.

* Viabilidad económica:

— Nivel de autofinanciación o financiación a través de otras entidades.

— Grado de factibilidad y sostenibilidad del proyecto.

Las puntuaciones de las subsecciones se concretaran en las convocatorias anuales.

7. Importe de las subvenciones.

La cuantía de la subvención a conceder a cada entidad o asociación se determinará teniendo en cuenta la viabilidad presupuestaria, el déficit previsto de la actividad y, en su caso, las subvenciones concedidas en años anteriores.

En la correspondiente convocatoria se fijará el importe máximo de subvención a conceder a cada entidad solicitante de proyecto.

EK\CV GAO-I-2021-01692

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa inoiz ez da izango, bera bakarrik nahiz beste Administrazio Publikoek, edo beste erakunde publiko zein pribatuk emandako subentzio edo dirulaguntzekin batera, onuradunak burutuko duen jardueraren kostua baino altuagoa.

8. Ebazteko epea.

Eskabideak hiru hilabeteko epean ebatziko eta jakinaraziko dira, deia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango denetik hasita.

Finkatutako epeetan ebatzitakoaren berri ematen ez bada, administrazio-prozedurari buruzko araudian jasotako isiltasun-ondorioetarako, eskabidea ez onartutzat jo daiteke.

9. Diru-laguntza onartzea.

Emandako diru-laguntza onartua izan dela ulertuko da, baldin eta elkartearen ordezkaritza duen pertsonak, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena egin eta 10 egun balioduneko epean, idatziz uko egiten ez badio.

10. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak.

Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastutzat jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, eta oinarri hauetan finkatutako epean burutuko direnak. Betiere, Subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak:

a) Ohiko mantentze-lanak:

* Erakundearen ohiko mantentze-lanak (langileen nomina eta gizarte segurantza, lokalen alokairua, material suntsikorra, horniketak, komunikazioak, aseguruak, dietak...).

* Edozein eratako inbertsioa erabat kanpo geratzen da.

b) Funtzionamendua edo proiektu zehatzak:

* Boluntarioak hartzeko eta prestatzeko jarduerak.

* Elkartea sentsibilizatzeko, prestatzeko, informatzeko eta sustatzeko jarduera zehatzak (jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak...).

* Elkarte-jardueraren xede diren taldeek esku-hartzeko materialak eta baliabide zehatzak prestatzea.

* Esku-hartze programa/ proiektu zehatzak garatzea, erakundeko bazkideei zuzenduta edo erakundearen esparruan.

Ez dira diru-laguntzen xede izango:

— Bazkarietako kostuak, afarietakoak edo ostalaritzakoak diren bestelakoak, diru-laguntza jaso duen jardueran parte hartzen dutenen ondorioz sortutakoak izan ezik.

Hala ere, eta zalantza sortuz gero, gastua egin aurretik kontsulta egitea gomendatzen da.

11. Diru-laguntzak ordaintzea eta justifikatzeko modua.

Onartu den diru-laguntzaren % 50 onartutako unean ordainduko da, eta gainerako % 50, egindako gastua justifikatu ondoren.

Justifikazioa egiteko oroitza-txosten bat eta finantza-txosten bat aurkeztu beharko dira. Oroitza-txostenean jardueraren garapenaren berri emango da (helburuak bete diren, ekintzen datak, pertsona onuradun kopurua, izandako zailtasunak...) Dokumentazio grafikoak (kartelak - programak) edo ikus-entzunezkoak ere aurkeztuko dira halakoak dauden kasuetan.

Finantza-txostenean jarduerak eragin dituen faktura eta dirusarrera guztien zerrenda bat aurkeztuko da eta zerrenda horretako faktura guztien kopiak ere aurkeztu behar dira.

Se admitirá un único proyecto por entidad solicitante.

El importe de la subvención no podrá ser, en ningún caso, superior al coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario, en concurrencia con subvenciones o subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados.

8. Plazo de resolución.

Las solicitudes se resolverán y notificarán en el plazo de tres meses desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La falta de comunicación de lo resuelto en los plazos establecidos podrá dar lugar, a los efectos del silencio previsto en la normativa de procedimiento administrativo, a la inadmisión de la solicitud.

9. Aceptación de la subvención.

La subvención concedida se entenderá aceptada si en el plazo de 10 días hábiles desde la notificación de la concesión de la subvención, la persona representante de la asociación no renuncia por escrito a la misma.

10. Gastos subvencionables.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que se correspondan con la naturaleza de la actividad subvencionada y que se realicen en el plazo establecido en las presentes bases. En todo caso, de conformidad con lo previsto en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Gastos subvencionables:

a) Mantenimiento ordinario:

* Mantenimiento ordinario de la entidad (nómina y seguridad social del personal, alquiler de locales, material fungible, suministros, comunicaciones, seguros, dietas).

* Cualquier tipo de inversión queda totalmente excluida.

b) Funcionamiento o proyectos concretos:

* Actividades de captación y formación del voluntariado.

* Actividades específicas de sensibilización, formación, información y promoción de la asociación (jornadas, seminarios, cursos...).

* Elaboración de materiales de intervención y recursos específicos de los equipos objeto de la actividad asociativa.

* Desarrollar programas/proyectos concretos de intervención dirigidos a los socios de la entidad o en el marco de la misma.

No serán objeto de subvención:

— Los costes de comida, sean de cena o de hostelería, excepto los derivados de la participación en la actividad subvencionada.

No obstante, y en caso de duda, se recomienda consultar antes de realizar el gasto.

11. Pago y justificación de las subvenciones.

El 50 % de la subvención concedida se abonará en el momento de la concesión y el 50 % restante, previa justificación del gasto realizado.

La justificación se realizará mediante un informe-memoria y un informe financiero. En la memoria se informará sobre el desarrollo de la actividad (si se han cumplido los objetivos, fechas de las acciones, número de personas beneficiarias, dificultades producidas) y se presentarán las documentaciones gráficas (carteles - Programas) o audiovisuales en los casos en que existan.

En el informe financiero se presentará una relación de todas las facturas e ingresos generados por la actividad, así como copias de todas las facturas de dicha relación.

EK\CV GAO-I-2021-01692

Diru-laguntzen legean xedatutakoaren arabera, egitasmoaren aurrekontuaren % 100a justifikatu beharra dago, ez bakarrik Udalak emandako zenbatekoa.

Gastua justifikatzeko aurkeztuko diren fakturek honako datu hauek jaso beharko dituzte:

— Argi eta garbi adierazi behar du zein den Kluba, Elkartea, edo dena delakoa.

— Hornitzailearen edo kontratistaren identifikazioa.

— Fakturaren data.

— Hornikuntza eta/edo zerbitzua sortu duen jarduera.

— Hornitutakoaren eta/edo zerbitzuaren deskribapen xehea.

Ez dira frogagiri gisa onartuko:

— Faktura edo ordainketa-ziurtagiriak luzatzeko bidea eman dezaketen jardueren gastu-oharrak.

12. Gastuak justifikatzeko epeak.

Gastuak justifikatzeko frogagiriak deialdia izan den ekitaldiaren hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dira. Hala ere, hurrengo urteko deialdira bildu ahal izateko, lehenik jasotako diru-laguntza justifikatu beharko da.

13. Publizitatea.

Diru-laguntzak jasoko dituzten onuradunek laguntza jaso duten ekintzen publizitate guztietan Ordiziako Udalaren lankidetza agerrarazi beharko dute, eta Udalaren irudi korporatiboa errespetatu.

Halaber, onuradunek erabiliko dituzten komunikazio-elementu guztiak, idatziak eta ahozkoak, elebidunak izango dira, eta euskarari lehentasuna emango zaio (ordena, tamaina, egokiera, eta abar), euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko Udal Ordenantzan jasotakoa betez.

Bestalde, Udalak, eman dituen laguntzak argitaratuko ditu, Subentzioei buruzko Lege Orokorreko 18. artikuluan xedatutako betez.

14. Ez betetzea.

Oinarri hauetan edo diru-laguntzen emakidan ezarritako betebeharrak ez betetzeak, eta jasotako diru-laguntza behar bezala ez justifikatzeak, emandako diru-laguntza berraztertzea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako kopurua bertan behera uztea, murriztea edo itzuli behar izatea.

15. Diru-laguntzen finantza-kontrola.

Diru-laguntzen onuradunek, eta diru-laguntzen xedearekin edo horren justifikazioarekin lotura duten hirugarrenek, Ordiziako Udalak diru-laguntza horiek behar bezala erabili eta justifikatu direla egiaztatze aldera egin ditzakeen finantza-kontroletara eta egiaztapenetara makurtu beharko dira, nahitaez.

16. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioan sor litekeen edozein zalantza, Gizarte Zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasun Saileko Ordezkaritzak ebatziko du, eta, gerora, horren berri emanen dio udal-organo eskudunari.

17. Arautegi ezargarria.

Oinarri hauetan xedatu ez direnetan, Subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakora makurtuko da.

18. Klausula gehigarriak.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango dira argitara, Subentzioei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 9.3 artikuluan xedatutakoa betez.

Según lo dispuesto en la ley de subvenciones, se debe justificar el 100 % del presupuesto del proyecto, no sólo el importe concedido por el Ayuntamiento.

Las facturas que se presenten para la justificación del gasto deberán contener los siguientes datos:

— Debe indicar claramente cuál es el Club, la Asociación, o similar.

— Identificación del proveedor o contratista.

— Fecha de la factura.

— Actividad generadora del suministro y/o servicio.

— Descripción detallada de lo suministrado y/o servicio.

No se admitirán como justificantes:

— Notas de gasto de las actividades que puedan dar lugar a la expedición de facturas o certificados de pago.

12. Plazos de justificación de los gastos.

Los justificantes acreditativos de los gastos deberán presentarse antes del 31 de enero del año siguiente al de la convocatoria. No obstante, para poder acogerse a la convocatoria del año siguiente se deberá justificar previamente la subvención recibida.

13. Publicidad.

Los beneficiarios de las subvenciones deberán hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Ordizia en toda la publicidad de las acciones subvencionadas y respetar la imagen corporativa del Ayuntamiento.

Asimismo, todos los elementos de comunicación, escritos y orales, que utilizarán las personas beneficiarias serán bilingües, dando prioridad al euskera (orden, tamaño, oportunidad, etc.), de acuerdo con lo recogido en la Ordenanza Municipal para la normalización y promoción del uso del euskera.

Por su parte, el Ayuntamiento publicará las ayudas concedidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley General de Subvenciones.

14. Incumplimiento.

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en las presentes bases o en la concesión de subvenciones, así como la insuficiente justificación de la subvención percibida, dará lugar a la revisión de la subvención concedida y, en su caso, a la anulación, reducción o reintegro de la cantidad concedida.

15. Control financiero de las subvenciones.

Las personas beneficiarias de las subvenciones, así como terceras personas vinculadas al objeto o justificación de las mismas, estarán obligadas a someterse a los controles financieros y comprobaciones que el Ayuntamiento de Ordizia pueda realizar para verificar la correcta utilización y justificación de las mismas.

16. Interpretación.

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación de las presentes bases será resuelta por la Delegación del Departamento de Servicios Sociales, Diversidad, Cooperación y Salud, que lo pondrá en conocimiento del órgano municipal competente.

17. Normativa aplicable.

En lo no dispuesto en estas bases se estará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su normativa reguladora.

18. Cláusulas adicionales.

Las presentes bases se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.3 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

EK\CV GAO-I-2021-01692